



ACT- MC-2019/0037

**KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTA**  
**BAT ZENBAKIKO ARTXIBO ELEKTRONIKOA: "AURRETIKO BETEKIZUNAK BETETZEN DIRELA**  
**EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA"**

**Espediente zbkia:** 3-SM-6-2019

**Kontratuaren xedea eta gai-zerrenda:** BEHIN-BEHINEKO EUSTE SISTEMEN HORNIKUNTZA, SEGURTASUN ELEMENTU BEZALA ERABILTZEKO ERREIAK EDO BY-PASSAK MOZTEKO. 1.Artxibo elektronikoak irekitzea.

**Eguna:** 2019ko maiatzaren 28a

**Hasiera /amaiera ordua:** 13:00/14:00

**Tokiá:** Bide Azpiegituretako Departamentuaren 0.6.gela (Miramon pasealekua, 166.)

**Bertaratutakoak:**

**Mahaiburua:** Agustín López-Dóriga Fernández, Bide Azpiegituren Proiektuetako eta Eraikuntzako Zerbitzuko burua.

**Bokalak:** Pilar Miguel Somovilla, Bide Azpiegituren eta Berrikuntza Zerbitzuko buruaren ordezkari  
Adolfo Sesma Miguel, Bide Artapeneko eta Kudeaketako Zerbitzuko ITOPa.  
Josu Irazusta Astiazarán, Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzaitza eta Auditoretza Zerbitzuko Zerbitzuburuaren ordezkari.  
Elixabete Martínez Iruretagoiena, Departamentuko idazkari teknikoa.

**Idazkaria:** M<sup>a</sup> Carmen Delgado Vallejo, Kontratazio Zerbitzuko buruaren ordezkari.

Ekintza honetarako mahaiburuak M<sup>a</sup> Carmen Delgado Vallejo izendatu du idazkari bezala, eta Pilar Miguel Somovilla, bokala bezala, Bide Azpiegituren eta Berrikuntza Zerbitzuko buruaren ordezkari, administrazio-klausula partikularren agiriko 24. baldintzak dionaren arabera.

Goian aipatutako lekuan eta orduan, aurrez adierazitako kideekin, Kontratazio Mahaia eratu da lizitazioan aurkeztutako bat zenbakiko artxibo elektronikoa (Aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatze dokumentazioa: DEUC eta bestelako dokumentazioa) irekitzeko. Enpresa hauek aurkeztu dute eskaintza:

Hurrenkera	Lizitatuak
1	GLS CONSORCIO DEL HORMIGON SLU
2	ITSAK SL
3	PROSEÑAL SLU
4	PROYECTOS INTEGRALES DE BALIZAMIENTO SL

Behin artxiboak irekita, honakoa ikusi da:

1.- PROSEÑAL SLU enpresak aurkeztu duen DEUC erantzukizunpeko adierazpenean, kaudimen teknika adierazteko honako kontratua aipatu du: "Reparación de barreras de contención de vehículos y acondicionamiento márgenes en la vía GM-1 Tramo: HERMIA-AGUL, Desde el P.K. 11+000 al 25+000".

2.- ITSAK SL enpresak ez du enpresa taldeari buruzko adierazpen eredu aurkeztu. (V eranskina)



3.- PROYECTOS INTEGRALES DE BALIZAMIENTO SL enpresak DEUC eredu normalizatua aurkeztu du, Administrazio-klausula partikularren agiriko II eranskinean zehazten dena. Adierazpen horretan ez du finantza-egoeraren, gaitasunen eta kontratazio publikoko prozedura batean parte hartzeko enpresen egokitasunaren zehaztu.

Irekieraren ondoren eta dokumentazio gutzia irakurrita, kontratazio-mahaiak akatsak zuzentzeko ondorengo errekerimenduak egitea erabaki du:

1.- ITSAK, SL enpresari, V eranskina aurkezteko eskatuko zaiola, enpresa taldeari buruzko adierazpena. (Klausula-administratibo partikularren agiriko 19.1.e).

2.- PROSEÑAL SLU enpresari, Kaudimen teknika justifikatzeko aurkeztutako lana zuzentzeko eskatuko zaiola. Bere kasuan, esandako kontratuak BEHIN-BEHINEKO EUSTE SISTEMEN HORNIKUNTZA, SEGURITASUN ELEMENTU BEZALA ERABILTZEKO ERREIAK EDO BY-PASSAK MOZTEKO barneratzen dituen zehaztu beharko du, esandako kopuruan. Administrazio-klausula partikularren agiriko ezaugarrien taulako 14.3 atalean, *enpresek azken 3 urteetan gutxienez homiketa bat egina izana egiaztatu behar dute, kontratu honetakoaren objektu bera edo antzekoa duena, eta aurrekontua (gauzatze aurrekontua, BEZik gabe) kontratu honen lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren % 10 edo gehiago izango dena (62.748,00 euro) adierazten du. Enpresak, obretako honako kontratua adierazi du "Reparación de barreras de contención de vehículos y acondicionamiento márgenes en la vía GM-1 Tramo: HERMIA-AGUL, desde el P.K. 11+000 al 25+000".*

3.- PROYECTOS INTEGRALES DE BALIZAMIENTO SL enpresari, aurkeztutako DEUCa osatzea eskatuko zaiola, finantza-egoerari, gaitasuni eta kontratazio publikoko prozedura batean parte hartzeko enpresen egokitasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena gehituz, administrazio-klausula partikularren agiriko 14 atalak esaten duen bezala.

Behin zuzendu behar den dokumentazioa zein den zehaztuta, ekintza bukatutzak ematen da.

Eta horrela jasota gera dadin egin eta onartu da Akta hau.

Donostian, 2019ko maiatzaren 28an  
IDAZKARIA,ordezkapenez

Sin.- M<sup>a</sup> Carmen Delgado Vallejo